

◆ MARTIN UGALDERI OMENALDIA ◆

Joan Mari Torrealdai

Idazlea

Herriarentzat debalde

■ Aitormen bat egin ez hasiko naiz.

Hurbildu ahala haziz joan zait Martunen figura. Ameriketan bizi zela, esiloko euskaldun euskaltzale bat zen. bat gehiago, niretzat. Euskal Herria itzulita gero ere, nahiz eta han eta hemen elkar gurutzatu, haren figurak ez zuen niretzat profil jakinik.

EUSKALDUNON EGUNKARIAREN abenturan Joaxemi Zumalabek sartu gintuenean, orduan ezagutu genuen elkar. Eta harrez gero elkarrekin gaude.

Zorte handia da niretzat Martin ezagutu izana. Martinek ez nau *leader* handiaren argi-distiraz itsutu. Martinek egin nau komentzitu. Pertsona bezala komentzitu nau berak, eta bere traiektoriak miresmena sortu dit. Idazle handia da, kazetari paregabea da. Paregabeagoa eta handiagoa da, ordea, pertsona gisa. Garbia, fina, leiala, zuzena, apa-
librea, kritikoa, zabalba bihotzez eta buruz.

Martinen ibilbidea, biografia, bizitza, esiloko belaunaldian, harrigarria ez ezik erdugarria da. Ezerk adieraztekoan, itzulerak adieraziko lituzke, hobekien agian, traiektoria horren balioak. 1969an, hona datorrenean, Martin ez da mutiko gaztea: 48 urte ditu; familia bat du: emaztea eta hiru haur. Profesionalki, oso ongi kokatua dago kazetari gisa: aldizkariarik hoberetxoaren zuzendari da; idazle bezala klotiztuta dago oso: baditu hamaika liburua eta sari pila bat: *Herri-iritzia* irakasten du Unibertsitatean; Lehendakari izana da Euskal Etxean.

Bere argazki-albumak ondo adierazten du nor zen Martin Caracasko gizartearen.

Martinek han uzten duena asko da: soldata, etxea, berak maite duen eta bera maite duen gizarteak, arrakasta soziala, literarioa, periodistikoak, lagunartea. Eta familia: aita, ama eta anaia. 22 urte lehenago familia osatzearen joana zen amarekin Andoaindik haraino.

Harrigarria da zein erraz (ondo kostata, hala ere!) uzten duen hori guztia Martinek Euskal Herriarengatik. Osoki integratua zegoen Martin Venezuelako gizartearen. Beste aberria da Martinentzat Venezuela. Eredugarria da integrazio hori eta aldi bertean jatorrizko aberriarengana zuen maitasuna, probak emanez erakusten zuena.

Martin esiliaturik egon da Venezuelan, baina hango egonaldia ez da parentesi bat bere bizitzan. Egonaldi probisonala izan da, hori bai, hots, denboran mugatua, baina bete-betea bestalde.

Eta halako batean itzuli egiten da.

Baina ez dator bakarrik. Familia, emaztea eta hiru seme-alaba, aurretik bidali ditu. Bi urte luze egon da Anamari senarrik gabe, eta haurrak aita gabe. Ez da imajinatzen erraza ama baten paraderoa, handik honaino etorri eta Irungo kaletarte triste batean etxebizitza bat aurkitu, umeen eskola antolatua, giroa eta lagunarte berria egin behar denean.

Aita, senarra, Martin, bitartean, Caracasen. Estatu espainiarrean sartu ezinik. Lortu zuen, azkenik, baimena, baina ez baldintzarik gabe. Desterrua zen Damaskozen ez-pata, baldin eta *politikan* sartzen bazen.

Euskara ere politikatzat hartzen zenean, ez ote gehiegitxo eskatzea? Eta jubilatzerata barrik herriaren etorkizuna prestatzerata zeterren Martin bati hori eskatzeak osoki kondanatzan zuten Martinen proiektua.

Baietz, esan zion Martinek enbaxadoreari, baldintzak beteko zituela, baina intenziorik batere gabe, bai baitzekien Martinek barriak agintzen ziona egin beharko zuela, arriskuak arrisku, ondorioak ondorio. Eta halaxe gertatu ere. Hiruzpalau urtetara polizia hartu eta mugan uzten du, kalabozotik pasarazi ondoren.

Bere herrira etortzeagatik zeri egin zion uko eta zer aurkitu zuen ikusita, galdetzekoa da ea ez ote den sekula damutu. Galdetu diot. Martinek ez du dudarik: ez. Berriz ere berdin egingo omen luke.

Itzuli ondoko arazorik larrienetakoa ekonomikoa izan zen. Makina bat ahalegin egin zuten lan bila, familia aurrera ateratzeko. Genevaraino jo zuten, eta itzultzaile gisa ONUn hartzen zuten.

Idazle eta kazetari gisa zentsurarekin topo egin zuen. Baina etsi ez. Historia eta euskal kultura euskal herriarrei erakusteko lan pedagogikoa murgiltzen da.

Euskal kulturagintzan ere gogotsu sartu zen. Euskaltzaindia eta *Argia*-ren inguruan hasten da lanean.

Konpromiso politikoagoi ere baietza ematen die, arriskuei jaramon egin gabe. EAJko *Alderdi* organoaren zuzendaria da, klandestinitateko Eusko Jaurlaritzan bera da PVVren ordezkari Leizaolaren Gobernuan.

Franco hil eta gero Eusko Jaurlaritzan euskara sustatzeko lanetan ibilita da. *Deia* egunkariaren barruan euskarazko kazeta bat gauzatzeko asmoa ere bere gain hartua zuen lehenago. Euskararen alde izanez gero, Martin beti prest.

Entzuna diot berari pozik handienetakoa, edo handiena, EUSKALDUNON EGUNKARIA sortu eta aurrera ateratzeko eman diola. Bere kazetari sena eta bere betiko euskaltzaletasuna, biak uztartu ahal izan ditu behingo proiektu batean.

Pozaren ondoan mina du Martinek bihotzean, min sakona: euskaldunon arteko haserreak, gorrotoak, zatiketak sortzen diona.

Gaztelaniaz idatzi, euskaraz idatzi, herriaren zerbitzuko jokatu du Martinek beti. Kazetari gisa, ipuinlari gisa, bere inguruneko historiari idatzi ditu han eta hemen. Venezuelako gaztelaniaz idatzi duenean idazle venezolarra izan da, ez espainola. Euskal Herrian, euskaraz zein erdaraz idatzi, idazle euskalduna da bietara.

Eta batez ere hau: erdararen mundutik euskararen mundura egin du pausoa, jauzia Martinek. Azken urteotan Martin Ugaldere euskaraz bakarrik idatzen du. Ez dut beste kasurik ezagutzen.

Martinek (ahal) duen guztia eman izan dio euskarari, herriari, ordainik eskatu gabe, doan, debalde. Maitasunak agintzen duen legera, esango luke berak. ■

'Aurri' aldizkarietik hartutako artikulua



◆ ELHUYARREK 25 URTE ◆

J. M. Rodriguez Ibabe

CEIT ikerketa-zentroko zientzialaria

Elhuyar: etorkizunari begira

■ Sortu zenetik 25 urte bete ondoren, Elhuyar Kultur Elkarteak partaideek badauzkate arrazoiak pozik egoteko. Urte hauetan zehar egindako bidea eta lortutako emaitzak oso onuragarriak izan dira zientzia eta teknologia gizarte euskaldunarengana hurbiltzeko. Ziur naiz lortutako emaitzak beste idazleek aztertuko dituztela. Aldiz, idazlan hau etorkizunari begira zuzenduko da bereziki.

Datozen urteetan eginkizun desberdinen artean, gutxienez badaude bi euskal gizarteak bereak egin beharko litzukeenak eta, zalantzarik gabe, bietan Elhuyarrek parte hartzea oinarritzakoa izan beharko luke. Eginkizun hauek ez dira berriak eta, neurri batean, orain ere lantzen ari dira. Dena den, beren pisu espezi-
fikoa gero eta handiagoa izango da eta egoera berri honi aurre egiteko orain arte

erabilitako baliabideak ez dira nahikoak izango.

Alde batetik, zientziaren eta bereziki teknologiarren arloan produktua (liburuak, CD-ROMak, etab.) euskaraz argitaratu behar dira. Orain arte ekoizpena nahikoa urria izan da, baina ikasketa teknologikoetan eta lanbide heziketan gertatzen ari diren aldaketak ikusita, euskara hizkuntza oso izateko esparru hau nabarmenki landu behar da. Bere historian zehar Elhuyarrek produkzio polita burutu du arlo horretan eta bere eginkizuna funtsezkoa izan da. Dena den, gure ustez, oro har ikusita, produkzioak datorren mendearen hasierarako askoz zabalagoa izan beharko luke eta hor Elhuyarrek parte hartze handia eduki lezake. Gainera, jatorrizko idazlanari eutsi beharko zaio, itzulpenak kasu berezietara mugatuz.

Bigarren arloa lan-munduan euskararen normalizazioa lantzea da. Datozen urteetan gai honek gero eta garrantzi handiagoa izango du. Orain arte hainbat proiektu pilotu gauzatu dira enpresa desberdinetan. Lortutako emaitzen arabera, erabilitako metodologia egokia dela frogatua da. Ondorioz, hurrengo urratsak proiektu horiek gizarte euskaldun osoari zabaltzeraz zuzenduko behar dira. Urte askoko lana eta teknikari traba eta adituen beharra handiagoa izango da. Orain arte landutako gehienetan Elhuyar izan bada eragile zuzena, egitasmo berri horietan, dudarik gabe, Elhuyarren eginkizuna handia izango da eta bere lana eta esperientzia plangintza berriak martxan jartzeko oso lagungarriak.

Aurreko bi arlo horiez gain, ezin dugu ahaztu orain arte hain ondo landutako esparrua, zientzia eta teknologiarren dibul-

gazioa, alegia. Bere historian zehar, Elhuyar Kultur Elkarteak garrantzi handia eman dio gai honi. Komunikazio-gizarte honetan, dudarik gabe, informazioa eta dibulgazioa bizi-kalitatearen oinarritzakoa dira. Teknologia berriei esker arlo hau oso dinamikoa bihurtu da eta nekez aurrera daiteke zer gertatuko den hemendik urte gutxitara. Hala ere, ziur gaude egoera berri horietan Elhuyarrek izango dela, euskalduneri beste herritarrek dituzten aukera berdinak eskainiz.

Laburbilduz, Elhuyarrek eman dituen fruituak oparoak izan dira. Etorkizunari begira bere eginbeharrak ez dira nolana-
hikoak izango eta ziur gaude euskararen normalizazioan, zientzia eta teknologiarren arloetan bereziki, Elhuyarrek eman ditza-
keen fruitu hoberekin oraindik etortzeke daudela. ■